

Beren ahalmen produktiboa hobetzera bideratutako maileguek bi digituko hazkundera izan dute laugarren urtez jarraian, 2018an **%24 aipagarria** igota

## **Kutxabankek 2.600 milioi eurora arte hazi zuen iaz ETE-en finantzazioa, %11,3 gehiago**

- **Berrikuntza teknologikoko inbertsio planek aktibo finkoaren %12ko hazkundera sustatu dute, eta %11 igo da zirkulatzaileraren finantziazioa**
- **Enpresek esportazioko datu onak izan zituzten ekitaldian, eta hori atzerriko merkataritza eragiketetan sumatu da, %10 hazi baitira**

**2019ko otsailaren 7an.** Kutxabankek bezero dituen enpresa txiki eta ertainen artean beren **egitura produktiboak hobetzeko** eta **inbertsio plan berriak ezartzeko** grina nabaritzen du. Hori bera ere ikusten da 'Kutxabank Enpresak' alorrak iaz mailegu inbertsioan lortu zituen emaitzetan ere.

2018. urtean Kutxabanke lehen aldiz **2.600 milioi** euroen langa gainditu zuen **ETE-ei bideratutako finantzazio** eragiketetan, aurreko urtearekin alderatuta **%11,3 gehiago**. Bilakaera horri buruzko hausnarketa sakonagoan 2014. urteaz geroztik Bankuaren finantzazioak izan duen igoera etengabea ikus liteke, bai zenbatekoetan nola sinaturiko eragiketen kopuruan. Izan ere, azken lau ekitaldietako bakoitzean bi digituko hazkundera lortu dira, ziklo ekonomiko berriak duen sendotasunaren erakusle.

Gaur egun, Kutxabanken bezero diren ETE asko beren ahalmen produktiboa berritu eta eguneratzeko inbertsioetan murgilduta daude, gehienak eraldaketa digitalaren bitartez, '4.0 industriak' ezarritako erronken haritik.

Iraultza teknologiko berri honen arabera, **ahalmen produktiboa hobetzera** bideratu diren inbertsioak **%24,1 hazi** dira, hein handi batean 'Makina Berria' planaren barruan, hau da, hiru euskal patronalekin lankidetzan.

Jarduera-ildoei dagokienez, **aktibo finkoa eta ekipamenduak** finantzatzeko eragiketak **%12** hazi ziren, eta **%11,1 zirkulatzailerakoak**, hau da salmenten bilakaerari zuzen-zuzenean lotutakoak. Atal hauek guztiek azken ekitaldietan etengabeko hazkundera izan dute. Aktibo finkoaren kasuan, bilakaera horrek 2014. urteko datuak **ia hirukoiztu** egiten ditu.

## Nazioarteko hedapena

Geopolitikak ziurgabetasun handia sortu arren, eta autoen industria dieselaren krisiarengatik zalantzaz beteta egonik ere, Kutxabanken bezero diren konpainien jarduera industrialak nazioarteko merkatuetan izan du pizgarri nabarmenetako bat.

2018an hazi egin da berriro Kutxabank Enpresak alorrarekin lan egiten duten etxeen atzerriko negozioa -urtean 600.000 eurotik gorako fakturazioa duten konpainiak dira-. Nazioarteko eragiketen gorakada **atzerriko merkataritzaren finantzazioan** sumatu zen, **%10,2 hazi** baitzen, 2013az geroztik lortu diren hazkundeen ondotik.

Datu hauek guztiek baieztatzen dutenez Euskadiko ETEekin onartzen duen **finantzazio bolumenari dagokionez lider da Kutxabank Enpresak** alorra, eta bere lehiakideei ateratzen dien aldeak handitzen jarraitzen du.